

telebista ♦ irratia

‘Bai zera!’ saioa egingo du ETBk, Kike Amonarrizek aurkezturik

Astelehenetik ostiralera 16:00etan emango da saioa, eta umorea izango da nagusi

Erredakzioa/ Donostia

Umorezko saio berri bat prestatzen ari da Euskal Telebista lehen kateko bazkalosteetan emateko. Kike Amonarriz umoregile ezagunak aurkeztuko duen *Bai zera!* izeneko saioa astelehenetik ostiralera emango da, arratsaldeko laurak inguruan.

KIKE Amonarriz umoregile tolosarrak *Bai zera!* izeneko saio berri bat aurkeztuko du aurki Euskal Telebistako lehen katean. Oraindik ere prestatzen ari dira saio berri hori. Astelehenetik ostiralera arratsaldeko laurak inguruan emango du ETB1ek.

Kike Amonarriz umoregilea ostegun gauetan ETB1ean ematen den *Sikofonia* elkarrizketa saioan ere aritzen da egun, Piter Ansorenarekin batera. Bertan, Ansorenak hainbat gonbidatu ezaguni elkarrizketak egiten dizkio. Amonarrizek, berriz, saioari umore ukitua ematen dio hainbat pertsonaia bereziren papera antzetzuz. Era berean, aste-



Txiskola saio ezagunaren ondoren, aurki itzuliko da Kike Amonarriz ETB1ean umorezko saio bat aurkeztuta.

ko gertakari garrantzitsuenen azterketa dibertigarria egiten du umoregile tolosarrak *Sikofonia*-n.

Ogibidez soziologoa da, baina aspalditik dabil umoregile lanetan Kike Amonarriz. Bere txiste ezagunenak bildu ditu kaleratu berri duen *Txorakikeriak* liburuan. ETB1ean *Hau da A.U.* edota *Txiskola* bezalako

umore saioetan aritu izan da orain arte. Programa horietan bere umore berezia erakutsi izan du Kike Amonarrizek esketx eta txistek erabiliz.

laburrean

Euskal zinemaren historia aztergai ETB2ko ‘Forum’ saioan

Euskal zinemaren historia aztertuko da gaur goizeko 10:20tik aurrera ETB2ko *Forum* saioan. David Barbero kazetariak euskal zinemaren historiari buruzko bi liburu kaleratu berri dituen Santiago de Pablo historia-laria elkarrizketako du. Historian izan diren euskal aktore eta zuzendari aipagarrienak gogoratuko ditu *Forum* saioak.

Joxean Muñoz idazlea ETB1eko ‘Bertatik Bertara’ saioan

Joxean Muñoz idazlea (argazkian) elkarrizketatuko du gaur gaueko 21:00-etatik aurrera Andoni Aizpuruk *Bertatik Bertara* saioan. Era berean, Donostiako Koldo Mitxelena aretoan Antton Olariaga marrazkilaria buruz prestatutako erakusketa ere hizpide izango da saioan. Olariaga da EUSKALDUNON EGUNKARIAko azken orriko Zakilixut komiki tiraren egilea.



Azken atxiloketek bake prozesuan izan dezaketen eragina aztergai ‘Boulevard’-en

Almudena Cachok ETB2an aurkeztu duen *Boulevard* saioak ETArean aurkako azken polizia operazioek Euskal Herriko bake prozesuan izan dezaketen eragina aztertuko du gaur 22:00etatik aurrera. Gai hori aztertzeko gonbidatuak, besteak beste, Felix Gallego eta Maria Luisa Agirretxe abokatuak, Iñaki Iriondo Gara egunkariko iritzi saileko arduraduna eta Iñaki Ezkerra idazlea izango dira.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

Julio Caesar

CAESAR inperatoreak Julio Ibarren izen berbera zuen. Erromatarrak ez zuen santutxuara ezagutzen. Honek, berriz, bestea bai. Kronologiaren hutsezinaren desabantailak... ETBko kazetaria albiste izan da egun hauetan. Dirudienez, PPkoek eta PSOEkoek ez dute gogoko bere ahotsaren tonua. Agian bere begien kolorea ere ez, batek daki. Hauze da kasua. Bi alderdi horiek ez zuten inoiz ezer esan Jose Maria Callejak lurretan lanean jardun zuen bitartean. Beno, bizkartzain batzuk jarri zizkioten bere konkorr probokatzailea babesteko. Eta herri honetan bizkartzainak daramatzaten *zibilak* ahobero arriskutsu hutsak direlako izaten da, noski. Ezin dut imajinatu zer eduki dezaketen Julio Ibarren aurka. Agian, euskaldun guztiak bezalaxe, sueten egunean, notizia eskaintzeko orduan poztu egin zela? Eta, agian, pantailaren atzean pozte konnotatibogia da. Hori bada guttiz ulergarria da

PP eta PSOEren jarrera. Azken finean beraiek paisaia politikotik kanpo bota dituzte ia-ia su-etenak. Eta egun hartatik gaur arte izan duten protagonismoa beren historiako negatiboena izan da, zalantzarik gabe.

Hala ere, gauzak txarto doazenean, onera besterik ezin dira aldatu. Eta alderantziz. Iparraldean eta hegoaldean bizi ditugun azken atxiloketek bizigarria ekarri die PP eta PSOEkoek. Banpiroak eguzki aurrean baino hiltzearragoak ibili dira azken bolada honetan. Bere *hot pursuit*-a Julio Ibarra lehen sorgin ehizakiarekin hasi da. Tertuliak ere berriro berpiztu dira su-etenaren aurreko memento kulminar loriotsu berdinak balira bezala. Ez dakit zer ikusiko dugun hemendik aurrera, baina espainardoek ezpatak behar zuten *viagra* banatzen ari da Jaime Mayor Oreja

lotsagabea. Gizon horrena da datorren une politikoen mugimenduen erantzukizun guztia. Ondo baino hobeto dakite zein motatako herria garen. Eta Oreja pit-bullek antolatutako azken antzerkiaren eszena, agian bere animalia multisozialek behar duten odola edan dezaten erabili nahi izan du. O.K. Baina pelikula honen amaiera posible guztiak asko izan arren denok dakigu. Berak barne. Bere barne ministerioak efektuzko kolpe bereziak errentagarriak bihurtzeko. Zer egin du su-etenan izan bitartean Jaime Mayor Orejak, bakea lortzeko prozedura minimo eta oinarritzekoak oztopatzea ez bada? Orain berreskuratu du bere erenoitz korroa Jaimitok. Baina hori buru gainean mantentzea gure erantzukizuna da. Bakearen diskurtsoa inoiz baino egotira ahulduago eta seguruagoan dago. Kontuz ibili behar daukagu. Hori bai, amore eman gabe. Milimetro bat bera ere ez.